

# Noaia!!



Jende ugari bildu zen  
Santo Tomas eguneko azokan



"Ai hau gauaren zoragarria..."



Etorri  
ezagutzera

Otar-Goxo  
Elizagaia



**HARATEGIKO** BEREZITASUNAK:

TXAHAL AZPIZUNA, BEHI AZPIZUNA,  
ESNEKO ARKUMEA, TXERRIKUMEA,  
ANTXUMEA, KAPOIA, PULARDA, EHIZA,  
ROSBEEF, ENTREKOTA (1kg)...

**URDAITEGIKO** BEREZITASUNAK:

FOIE FREKKOA, AHATE MAGRETA,  
AHATE KONFITTA, MIKUIT, IZOKIN  
NATURALA, URDAIZPIKO IBERIKOA,  
MIXERA BUDINA, LEGATZ BUDINA ...



**FRUTADENDA** BEREZITASUNAK:

ORAIN PRODUKTU  
EKOLOGIKOAK ERE BAI

*Zorionak eta eguberri on!*

Zubiaurrenea, nº2 • ☎ 943 36 55 81 • 20170 Usurbil



itsaski fresko eta egosia • trainera eta txakolina

**txirpi ziaboga**

Estrata Kalea-1-A GINAGA

Bertan dastatu



Telefonoz egin eskaera 943 372 808

**Berogailuetarako  
gasoil zerbitzua  
prezio onenean**



**Alkartasuna**  
Nekazaritza  
Kooperatiba  
Elkartea

**etxez  
etxeko  
banaketa**

Eskaerak telefonoz ☎ 943 361 114 edo kooperatiba bertan

Alkartasuna Nekazaritza Kooperatiba Elkartea • 20170 Zubiaurrenea • 943 361 114 • 943 361 114

## Txirrikitutik !!

**G**aztañaga baserria XVI. mendean hasi ziren eraikitzen eta garai hartakoak dira bertan dauden habeak eta mantentzen dituen dolare zoruaren egiturak. 1371ean Usurbil hiribildu izendatu zutenean, Gaztañaga bertako baserri nagusienetako bat zen eta hiri berriko etxe sortzaileetako bat izan zen. 1551-1670 inguruan, Gaztañagako hariztian herriko batzararak egiten ziren (Paris etxeko hariztian bezala). Jasotako datuen arabera, Gaztañagako hariztia beranduago baratza bilakatu zen eta baratza hau inguratzen zuen pareta, Elizaldeko pilotalekuaren atzeraino heltzen zen. Berrogei urte inguru pasa dira baratza hura desagertu zela. 1890 inguruan Juan Torregarai Uruguaitik etorri eta Gaztañaga baserria erosi zuen eta bertan bere familiarekin jarri zen bizitzen. Gaur egun Juanen oinordekoa den Joxe Torregarai da Gaztañaga baserriaren jabea.

Gaztañaga baserria Monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian inskribatua dago.

Zaloe Arnaiz, zaloe@usurbil.com



Gaztañaga baserria, 1992

Argazkia: www.kultura.ejgv.euskadi.net

**Datorren astekaria urtarrilaren 5ean jasoko duzue. Urte hasierako egutegian finkatu genuen bezala, abenduaren 29an ez da astekaririk izango. Hurrengo alea urtarrilaren 5ean jasoko duzue. Urte berri on denoi!**

## Noaia!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
Tlf: 943 36 03 21 / elkartea@noaia.com / www.noaia.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaia.com

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaia.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaia.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaia.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloe Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.  
Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkietza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloe Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Aritz Gorriti.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**IKA MIKA** ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA! IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZeko ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA! ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## Aurkibidea

GIRO EDERRA SANTO TOMAS AZOKAN **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

MENDI ASTEA, ARRAKASTATSUA **8. OR.**

GABONETAKO GEHIGARRI BEREZIA **9. OR.**

JUANTXO GOROSTIDIREKIN SOLASEAN **34. OR.**

IZERDI PATSETAN, KIROLARIEN TARTEA **36. OR.**

AGENDA, DEIALDIK, AZKEN ORDUKOAK... **38. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



AITOR LANDALUZE

## “Elalmendro”

Aurten ere nire laguna Txutxi (patuaren kapritxozko izena ote?) etorri da. Nik “elalmendro” goitizenez ezagutzen dut, usurbildarra izanik soilik gabonetako egunetan etortzen baita. Bidaia maite ditu eta urteak daramatza batetik bestera inon sustrairik bota gabe. Baina berak esaten duenez bere jira-birak ez dira bidai fisikoak. Hau da, ez dela mendi edota herrialde zein hiri handi ospetsuak ezagutzera joaten, ez ditu gogoko hondartza bero ur garden eta atseginak ikustea, ez eta katedralak zein museo handi famatu edo txiki galduak. Bere hitzak erabiliz: Giza bidaia egiten ditu.

Harriak jelatuta dauden arren petrilean eseri gara. Aingeru tronpetista zein orein txuri izoztuen azpian eta koloretako argien babesean. Urtero horrela egiten dugu. Gabon kantak dagoeneko isildu dira, eskerrak! Gau hotza, iluna eta lainotsua den arren bertan eseri bezain pronto bere bidaien berri luzea ematen hasi zait.

Aurten ere urrutiko zein gertuko ospitaleak, zahar-etxe, eroetxe, gerra lurraldeak orfanatoak, bonbardaketatik ihes egiteko babeslekuak, metro geltoki hotzak, hiri handietako kale bazter galduak, kartoizko izarak, kartzelak, zubi-azpiak, errefuxiatu eremuak, jipoitutako emakumeen babes etxeak, baztertuen txokoak,

drogazaleen botakalekuak.... bisitatu ditu. Berak esaten duenez, Danteren linbora joaten da, ahaztuak deseredatuak zorionik zein esperantza gabeko errugabeak ikustera.

Ez pentsa, ez da misiolaria. Ez die laguntzen, badaki ezin duela. Ez die esperantza mezurik eramaten, alperrik da. Ez die eskurik botatzen, zertarako? Ikusi, behatu egiten ditu eta bere baitan postalak bailiran jasotzen ditu. Gaitzaren arabera edota ahaztu mailaren arabera ordenatzen eta katalogatzen ditu bilduma zabal bat osatuz. Masoka dela pentsatuko duzue, hasieran nik ere hala uste nuen, baina giza-zientzialaritzat du bere burua. Egia da ere, alferrikako informazioa eta ezagutza biltzen duela, inork ez baitu nahi bere ezagutzaren kapitulu motzenik ere ikasi nahi. Baina berak horretan darrai, egiten duenaz sinisten baitu, beste utopiko handi bat.

Bukatzeko urtero bezala eguberriak madarikatu ditu. Zorion mezuak errepikakorrak izanagatik ez dutela zorionik ematen argudiatuz. Bere postalak, biltzen dituen pertsona horiek, jaio-tza bateko begirada galdua duten panpinak direla uste du. Etsituak, mila bider zapalduak, goroldio zerrauts zein poliespane-ko elurrek osatutako dekoratu faltsu batez inguratuak.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Jakoba Errekondo - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Jose Piñas

## Ika mika !

## Gabonak

Gezurra dirudi, nola aldatzen diren gauzak, denboraren poderioz. Gezurra dirudi ere, nola kontatzen dizkiguten pasa diren, edota bizi ez ditugun, garai historikoak; zein erraz, ordea, ze nolako zuhurtasunarekin onartzen ditugun, inongo egiaztapen gabe idazten dizkiguten garai historiko horiek.

Badakigu, jainkoetan sinistu baino lehen, giza abereentzat, zerua, lurra, bizitza eta heriotza zela garrantzitsuena, eta Solstizioak ospatzen zituztela lurrari lotuaz. Udara. Negua. Ilargia. Eguzkia. Argia. Iluna. Badakigu baita ere giza abereak, naturatik urrundu zirenean, jainkoak behar zituela. Orain badakigu, halere, eliza eta estatuaren arteko estrategia erlijioso-politikoak zertarako erabiltzen zituzten: nolabait, jendea beraren menpe izateko.

Nola engainatu gaituzten jakitea garrantzitsua da. Goazen ba bigarren mendera. Garai hartan, kristautasunak, Gabonak ez zituen ospatzen, Pazkoa baizik. Hau da, Kristoren heriotza eta berpizkundea. Zergatik? Jesusen jaioteguna ez zekitelako noiz izan zen, eta Clemente Alessandrinoren hitzetan, “galde-

tzea edo jakin nahi iztea, bekatua zela”. Aurrera egin ahala, Kristoren jarraitzaileak, Gabonak egun ezberdinetan hazi ziren ospatzen: martxoaren 28an, apirilaren 20an eta 25ean, maiatzaren 20an, ekainaren 24an, azaroaren 17an eta urtarrilaren 6an. Udako solstizioarekin lotutako egunetan, aintzinako erlijioak bezala.

Bestalde, jainkoak ez ziren falta: Mitra jainkoa, abenduaren 25ean jaio zen kobazulo batean eta bere ama birjina zen. Egipton, adibidez, Horus jainkoa, eguzkiaren jainkoa, abenduaren 25ean gurtzen zuten. Isis jainkosaren semea zen. Aintzinako Grezian, data berdinean, Dionisio jainkoa jaio zen. Mitologia nordikoetan Frey, Odinetik jaio-tako jainkoa zen. Dionisio jainkoa jaio zen. Mitologia nordikoetan Frey, Odinetik jaio-tako jainkoa zen. Dionisio, Hermes eta Zeus kobazuloetan jaioa ziren.

Laugarren mendean, Constantino enperadoreak diseinatu zituen gaurko gabonak. 313. urtean, Milaneko ediktarekin “kulturraren askatasuna” lortu zituen eta Kristoren erlijioa, boterearekin batu zituen. 354 urtean, behin betiko, Kristoren jaioteguna beste

jainkoak bezala, abenduaren 25ean, neguko solstizioan, izango zela erabaki zuten.

Trakatan trakatan, hiru errege... “Ez erregeak, ez beltza”. Hasteko, ez zekiten zenbat ziren, bi, lau, sei..., eta hariari tirako bagenu ere, ez ziren erregeak, magoak baizik, eta tira eta tira jarraitu ezker, Baltasar ez zen beltza, ez jauna, azal zurikoa zen. Antzineko koadroetako irudietan, Baltasar, azal zurikoa zen. Hierarkia eklesiastikoak, errege beltza azaltzea eroso zela erabaki zuen; horrela Kristoren unibertsaltasuna nabaria izango zen. Gezurra dirudi bai, eliza eta gobernuaren arteko interesek, ze erraztasun daukaten, garai historikoak hankaz gora jartzeko.

Gaur egungo Gabonetan, itzikera kontsumistari eskez, maitasuna paper eta pake-teen, polit baina faltsuetan, biltzen dugun arren, gure sentimentu onenak azalarazten ditugu. Gabon gauean, neguko solstizioan, gau luzeenean, familiak etxeko sutondoan elkartzen gara eta mahai inguruan, jana eta edaria, sekula baino gehiago gozatzen dugu, neguko bihotz hotza berotzeko.

Amaia Kasasola



# Giro ederra Santo Tomas egunean

**S**anto Tomas azokak jende asko erakarri ohi du eta igandean ere hala izan zen. Baina protagonista nagusiak babarrun ekoizleak eta sagardogileak izan ziren. 37 izan dira babarrun lehiaketara aurkeztu diren babarrun-ekoizleak. Txokoaldeko Iruindegi baserriko Jose Ramon Ibarguren ekoizlea izan zen lehen saria irabazi zuena. Bigarren saria ere, Txokoaldera joan zen eta Justo Camino Errementaldegiokoak eskuratu zuen. Hirugarren saria Fidel Balerdi Kalezargo Usaskuzarra baserrikoaren zat izan zen.

Sagardo ekoizleak, ordea, 22 izan ziren. Lehen saria Kalezargo Aitor Alkortaentzat izan zen, Egioleta baserrikoa. Bigarren saria Ricardo Izetak eskuratu zuen eta hirugarren saria Txomin Lizasorentzat izan zen. Azken bi hauek ere Kalezargoak.

Lehiaketa ez zen ikuskizun bakarra izan. Sagardo Egunaren Lagunak taldekoek sagar erakusketa ipini zuten frontoian. 51 sagar-klase ezberdin bildu zituzten, 20 frantsesak, gainontzekoak Euskal Herrikoak.

Taloea eta txistorra dastatzeko aukera ere izan zen. Bilguneakoak jo eta su aritu ziren taloea saltzen. DBH 4koak txistorra pintxoak eta kamisetak saltzen aritu ziren. Korrika, 18/98+ lan taldea eta Erraustegien aurkako plataformakoak ere postu bana jarri zuten.

## NOAUA!ko turroia

NOAUA!ko bazkide askok, Gorrotxategi etxeako turroia eramateko aukera aprobetxatu zuten, plazan espreski horretarako postu bat jarri baikenuen. Gainontzeko bazkideek gogoan izan abenduaren 22a arte NOAUA!ko bulegoan eskuratu ahal izango duzuela turroia opari gisa.



37 IZAN ZIREN LEHIAKETARA AURKEZTU ZIREN BABARRUN EKOIZLEAK.

## Kalitate handiko babarrunak



IRUINDEGIKO JOSE RAMON IBARGURENEK BABARRUN LEHIAKETAN LEHEN SARIA ESKURATU ZUEN.



ERREMENTALDEGIKO JUSTO KAMINOREN BABARRUN KILOAK BIGARREN SARIA ESKURATU ZUEN.



FIDEL BALERDIK, USASKUZARRA BASERRIKOAK, HIRUGARREN SARIA JASO ZUEN.

## Inoiz baino sagardogile gehiago



EZKERREAN, IRABAZLEA. XABIER ALKORTA SAGARDOGILEA, EGIOLETA BASERRIKOA.



BIGARREN SARIA RICARDO IZETAREN SAGARDOARENTZAT IZAN ZEN.



SAGARDO LEHIAKETAKO HIRUGARREN SARIA TXOMIN LIZASOK ETXERATU ZUEN.

## TXOKOALDE

ALOÑA LOIDI

## IX. Mus Txapelketa



Joan den astean, Usurbilgo elkarte edo "sosiadadeen" arteko IX. Mus Txapelketaren finala izan zen Txokoaldeko Erroizpe Elkartean. Ni bertan egon ez nintzen arren, batek baino gehiagok esan dit oso festa-giro ederra sortu zela.

Mus txapelketa honetako irabazleak Peña-Pagola elkarteke Rufino eta Matxain suertatu ziren eta txapeldunordeak berriz Mahaspildegi elkarteke Lertxunditar aita-semeak.



Afaria eta giroa izartsuak izan omen ziren -gure anaia Unairen hitzetan-, kanpoan hotza eta barruan errautsa. Antolatzaileez gain beste 45 lagun bildu ziren eta jendearen elkarrizketez gain, eskusoinua ere entzun zitekeen. Dantzarako gogoa zutenek aukera izan omen zuten han-

kak astintzeko, izan ere, zer bururatuko eta gure etxera joan eta nire eskusoinua hartzea. Aspaldi honetako astindurik handiena hartuko zuen nire soinu txoak, ez baitut nik askotan jotzen. Nahikoa ahaztuta daukat ganbara txokoan jasota.

Ahaztu aurretik, zorionak mus txapelketa honetako irabazleei eta zuei guztiei ere zorionak eta Urte Berri On!

## KALEZAR

JOSEBA PELLEJERO

## Peña Pagola

Ezin esan dezakegu elkarte dinamikoa Ezenik baina urte osoan zehar, gauza desberdin ugari antolatzen dira: barrikotea, pelota eta mus txapelketak, auzoko festak, bazkideen bazkaria, elkartearen arteko gastronomi lehiaketa... Auzoan dagoen topagune bakarra da eta egunero, bereziki astebukaeran, jende ugari biltzen da bertara. Orain dela gutxi, berriro txiki bat eman zaio paretak margotuz. Atzeko atea ere indartu egin dute, lapurrei zailtasunak jarriaz... eta horrela urtea pasa da.

Errege egunean urteko bilera izaten dugu eta juntan jende berria sartuko da. Horrelakoetan iritzi asko egoten dira, "aurtengo juntakoek ez dutela pulamentu askorik egin", "ez direla behar adina alditan elkartu", "datorren urtekoek ere beste horrenbeste izango direla"... ikusi egin behar.



## KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

## Urte osorako hiperboleak



Dena da hiperbole bat goizago iluntzen duen data hauetan. Hiperbolea da kaleak nola ditugun orraztuta; zenbat zuhaitz ditugun zintzilik, petardo traka bailitza, bata bestearen atzetik. Ze dizdira, ze bitxia...

Hiperbolea iruditzen zait urte osoan zehar ditugun alferrik botatako diru-metak. Baina argiz eta eta kolorez apaindutako erakusleihoek are eta gehiago bultzatzen gaituzte meta hori loditzera. Eta gure kaltetan dira gehitzen.

Hau guztia arbuizatzeko asmorik gabe ari naiz idazten. Gabonek ere ukitu berezi bat izan behar duten iritziarekin nabil. Jai bakoitzak bere ukitua, ezen bestela ez genukeen ezer ospatzeko ilusiorik ere izango; baina... Modu zabalean handitzen da gudan "Hator, hator..." entzun eta irrifar egiteko irrika hori. Kanean ipinitako bozgorailuetatik gabon kantak entzun eta laguna aski ezaguna ez bada ere, bizkarrean "kaixo" adieraziko lukeen kolpe bat emateko jarrera. Egun arrunt batean, agur juxtu batez agurtuko genukeena, akaso gure muxu bat jasotzearen lekuko izan daiteke. Bihotzean daramagu xalotasun hori hotzik handienak egiten dituen hauetan.

Inoiz ez bezalako koadrila multzoa elkartzen gara. Zerbait hartuko dugun aitzakiarekin tabernan ezin sartuz gabiltzanean, gure esku zabaltasuna neurrigabe hazten da gehienez. Ze atsegina! Ze atsegina ezer gertatuko ez bailitza oinezko irrifartsuak ikustea. Egia da, zoriontasuna dakarrela. Eta hau jakinda, zergatik utzi sentiberatasuna urte amaierarako bakarrik? Gaitezen urte osoan! Urte hasiera hortxe datorkigu eta esanak ez dira aspaldikoak; beraz, ez esan ahaztua zaudenik. Urte berri on, irakurle!!

## ATXEGALDE

MAJESUS URBIETA

## Kubatik bueltatxo bat

Gabonetan murgilduta gara eta urte motza izan dela iruditzen zait. Udazkena ederra izan dugu duela gutxi arte, udan bezala egon gara. Berogailuak bazter batean izan ditugu eta berokiak ere saltokietan geldirik izan dira.

Bidaia labur bat egin dut, Kuba nolakoa zen ikusteko irrika nuen eta bertan ikusteko aukera izan dut. Ondorio bat atera dut: Duela mende bat toki aberatsenetakoa izanik, egun dena hondoa jotzen ari da. Bertako jendea oso xumea eta atsegina da, lurra oso emankorra dute eta hemendik jasotzen dituzten produktuetatik bizi dira. Ez dute ez tresnarik ez eta abantailarik. Aldiz klima oso ona dute eta turismoa da diru iturri nagusia. Jende asko joaten da turismoa egitera eta horixe da beraien bizibide nagusia. Kultura eta heziketa ona dute baina industriarik ez daukate duten blokeoaren ondorioz eta irtenbiderik ez omen dute ikusten daukaten diktadurarenpean.

Orain garai zailak bizi dituzte eta arduratuta daude Fiden osasuna dela eta. Dena den umorea ez dute galtzen eta ez da txarra.

Bestalde Santa Luzia eguna ere ospatu da gure herrian. Jostunak direnak eta ez direnak ere ederki pasa zuten herriko jatetxe ezberdinetan afalduaz eta nahikoa dantza eginez. Santo Tomasak ere pasa den igandean ospatu genituen nahikoa talo eta txistorra jenez. Eta orain Gabonetarako prestaketan egiten ari gara denak. Olentzeroren zain ametsetan txikienak. Ea ba ondo portatzen diren guztiok eta badakizue bidali eskutitza lehenbailehen. Zorionak denoi eta urte berri on!



## SANTUENEA

ALEX TELLO

## Udako ilargiak



Aurtengo udak hasiera paregabea izan zuen. Kalexarko Sanjuanetan arreba, bere mutila eta ilobarekin izan nintzen. Santixabeletan gero, festez gozatzeko aukera izan nuen. Baita gustura ibili ere, ez baitzidaten bizikleta izorratu (Sagardo Egunean bezala). Gainera, idazketarako gogoa (gogoa, lehen-pertsonaz haratagokoa) piztu zidan

jendearekin topo egin nuen.

Urtebetetze egunak ez zidan kale egin eta 30ak urrun ditudala, urteen kopurua gora doala ikusteak ez dit grazia handirik egiten. Bai, horrelakoak esateko gaztea naizela badakit, baina gazteagoa nahi nuke izan. Hortaz eta besteak beste, barne-begiradaren nahi-gabeko sentsazioarekin konformatu beharko dut.

Santio eta Sanestebango jaietara bizikletaz eta gaeuz joan nintzen. Orbea zaharrak primerako argia ematen du eta Zubietara 9 minututan aise heldu nintzelarik, kar-kar, Urdaiagako aldaparen igoera latzagoa gertatu zitzaidan. Merezi zuen. Gero eta hobeak diren Santueneko jaietan ere izan nintzen... nola ez!

Udako ilargiak hainbat gauetan irudimenarekin bidaiatzera eramán izanak eskertzekoa deritzot, aurtén ez bainaiz oporretan inora joan. Neguaren atarian egonik, astiro-astiro denboran atzera egiten hasi eta lehenik, aurtengo udarako zenbait egunetara itzuliko nintzateke, herrian aurkitu bainuen kanpoan bilatuko nukeena.

## URDAIAGA

SARA LAZKANO

## San Esteban Txiki eguna



Ia konturatu gabe aldegin digu aurtengo urteak ere. Luzeago edo motzago egin, gozoago edo garratzago gogoratu, urte hau bereak ematen hasi da, eta ez dira pare bat aste baino gehiago geratzen azken festarako.

Giro gozoko egunak ditugu aurrean, janari eta edari, opari eta kantu artean igaroko ditugu datozen gabonak ere. Bateko Eguberri, besteko Urte Zahar, ia galdurik agertzen zaigu festaz beteriko hil honetan San Esteban txiki eguna.

Urteroko legez hemen batuko gara, auzotarrak eta bertara animatzen den guztia ere, meza ondoren era alaitsuan. Mokadutxoren bat probatu eta, salda eta ardo artean, kontu kontari aritzeko aukera behintzat ez da falta izaten. Hotzak hotz, eta elurturiko urteak ere izan dira, koadrila polita batzen da plaza inguruan, mila txaketa eta abrigopean.

Festa handia ez da izaten, baina badu halako xarma puntu bat. Urtean zehar bertara sarri igotzen ez den jendea azaltzen da San Esteban txiki egunean bertara, eta batekin eta bestearekin, berehala pasatzen da goiza, beraz, animatu.

Hemendik gonbita behintzat egina geratzen da.

## AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

## 15 urte: Xomorro etxera!



Abenduaren 17an ospatu diagu hire urtebetetze eguna. 44 urte dituk bete dituanak, eta 15 urte gure artetik falta haizenetik. Luze jo diate urteok guretzako, eta zer esanik ez hiretzako. Hala ere, hire urtebetetzera egun seinalatua dela eta, Aginagan hire omenez herri-bazkaria egin genian.

Edozein igandetan eskaintzen ez duen itxura zeukan abenduaren 17an Aginagako frontoiak. Hortxe bildu gaituk 120 pertsona, hirekiko elkartasuna adierazteko. Hik herorrek ere izan duk giro goxo horretan parte hartzeko aukera, telefono bidez behintzat. Emozionatu egin haizela ere bazakiat. Bazakiat ere ez dela xamurra suertatu behar hire jendearen berotasuna hain hurbil sentitu eta pareta horien artean jarraitu behar izatea. Bazirudik, edo amestu nahi diat, egoera honek buelta baduela eta hire falta ez dela denbora luzerako izango, hire askatasuna ez dagoela urrun. Dena dela, hire telefono-deia ez huan bakarra izan egun horretan. Paris aldetik Patxi Segurolak deitu dik eta hainbat jende berarekin hitz egiteko aukera izan diagu. Eguna borobiltzeko, Jokin Errastiren deia bakarrik falta izan zaiguk. Gero, eguna bukatu eta astelehena etorri duk, eguneroko gordintasun osoarekin. Horrela, beste hainbeste bidegabekeriaren artean, Iñaki de Juanaren egoera benetan larria dela baieztatu diagu berriro. Holako egoera latzak erakusten ziguk denon laguntza behin ere baino beharrezkoagoa dela. Seguru gauduk Aginagako frontoian bildu ginen guztion besarkada iritsi zela Herrera de la Manchako paraje hotz horietaraino. Baita Parisen eta Galizian beste bi aginagatarrak dauzkaten zoko haietaraino ere.

## ZUBIETA

XABIER ARREGI

## Herri-eskola

Pottokan jaitsi zen Karmele eskolara, udazken epel honetako goiz batean. Liluratuta geratu ziren haurrak, andereñoak eta gurasoak. Ez al da estanpa ederra? Aita-alabak trakatran-trakatran eskolara. Natural-natural etortzen ziren: etxean zaldiak edukita, zertarako ibili bestelako ibilgailuekin!

Haurren lilura hura ikusita, ideia bat bururatu zitzaizen hezitzaileei: zergatik ez dedikatu astebete zaldiei? Pentsatu eta egin: etorri ziren aita-ama-alabak beren pottokekin eta moxalekin eta hantxe ibili ziren haurrak gustura asko. Aitak, gainera, zaldiei buruzko makina bat azalpen interesgarri kontatu zizkien haurrei. Gero, aste bereko beste egun batean, hipodromora joan ziren denak lasterketetako zaldien gorabeherak bertatik ezagutzera.

Aste hori gustatu, eta horrelaxe hasi dira gurasoak eta herritarak eskolako jardunetan parte hartzen. Artoaren astea tokatzen dela? Aitonaren sorora joan eta hantxe gozatu ederra aitonaren kontuekin, gero gelan taloak egiten ikasi eta bapo! Gaztaina-eguna egokitzen dela? Amonak danbolina hartu eta eskolara, txipli-txapla-pun gaztainak erretzera. Horretan dabil eskola. Andereñoak, gurasoak, aitona-amonak eta haurrak elkarrekin ari dira, jarduera bateratuan. Pozgarria, benetan.





## Andatzaren Mendi Astea, arrakastatsua



Aurreko igandean amaitu zen Mendi Astea 2006, Andatzak antolatutako jardunaldia. Orohar, jende ugari bildu da Mendi Asteako ekitaldietan. Irudikoak dituzue orientazio ikastaroan parte hartu zutenak. Bi saio teoriko jaso zituzten Sute

eta aurreko larunbatean ikasitakoa praktikan jarri zuten. Aiako Harrietan orientazio ikastaroaren froga praktikoak egin zituzten. Irudian dituzue parte hartzaileak. Mendi Astea, dena den, igandean amaitu zen; gazteen ibilaldi neurtuarekin.

### Sarasuak eta Lujanbiok saio aparta eskaini zuten Aialde Berrin



Giro polita osatu zen lehengo gasteen Aialde Berrin. Hara joateko aitzakia ez zen nolanahikoa. Jon Sarasua eta Maialen Lujanbiorekin afaltzeko aukera gutxitan izaten da. "Bertsogintzak puntua jarri zigun" gaiaz jardun zuten, bertsolaritzak noraino baldintzatu dien azaldu zuten Sagardo Egunaren Lagunak taldeak antolatutako hitzaldian. Hitzaldira hurbildu ziren gehienak afarian geratu ziren eta kantuan jarduteko aukera ere izan zuten. Jon Sarasua eta Maialen Lujanbiok bertso idatziak abestu zituzten, baita aspaldiko bertsoak gogora ekarri ere.

Sagardo Egunaren 25. urteurrena ospatzeko azken ekitaldia izan zen Aialde Berrikoa.

**J.ORBEGOZO**  
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA  
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

**BORDATXO**  
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5  
Telf: 943 37 10 42

**ALIPROX**

Kale Nagusia 10  
☎ 943 361 182  
USURBIL

**EUSKAL OKELA**  
CALLE DE VILCINO DE CALADO DEL PAYS VASCO  
h k k l , 4  
T H 43 3 57 42

**LK**  
UT ZE

**T**  
ITZU  
F HT K  
ZKI K  
HKTU K  
K NQEL TU K

**ETXEK**

Industri eta Irabarkeri  
**SERIGRAFIA**  
TANPOGRAFIA  
**PSU**  
943 371 954  
UGALDEA POL.36-2-USBIL

**Knk l**  
- L ntz r  
Gz n zk n rr p  
ll ur ntz k  
- Flx r k h r  
luzan k  
Zubiaurrenea, 3 33 17 7



# “Euskarazko produktuen katalogoa”, Olentzerori eskaerak egiteko gida

**E**uskal Herriko ikazkinik ezagunenak urtero bezala lan franko izango du abenduaren 24an. Dagoeneko eskaera asko jasoko zituen. Baina oraindik ere, azken orduan zer oparitu nahi duen argi ez duenik izango da. Euskal produktuen artean aukera zabala dago eta euskal kulturgintzarekin lotutako oparien eskaintzan ez galtzeko, beste behin, “Euskarazko produktuen katalogoa” aurkeztu berri dute.

0-16 urte arteko gaztetxoei zuzendutako euskarazko produktuak iragartzen diren liburuxka aurkeztu zuten azaroaren 30ean. 1997.urtean Nafarroan abian jarri zenetik, ekimena Euskal Herri osora hedatu da. Hori dela eta, Mankomunitate eta Udaletako euskara zerbitzuetako ordezkariak bildu ziren.

Tartean, Buruntzaldeako ordezkaritza.

Aurkezpen ekitaldirako antolatzaileek Donostiako Bretxa merkatal guneko arrandegi postu bat aukeratu zuten. Egoki atondu zuten. Katalogoan iragartzen diren liburu, DVD edota jokoek egunero arraina erosgai ipintzen den lekua hartu zuten erakusmahaietan. “Saltzaile moduan sartu gara”, adierazi zuten euskararen alorrean lan egiten duten hainbat ordezkari. Arrandegia izan ohi dena, egun batez euskal produktuen denda bihurtu zen.

## Gurasoei ere zuzendua

Saltzaile gisa, salmenta postutik aurkeztu zieten katalogo berria bertaratu ziren “bezeroei”. Haur eta gaztetxoei zuzendutako hainbat jolas edota liburu erakusgai jarri zituzten.



BRETXAN EGIN ZEN  
KATALOGOAREN AURKEZPENEA.

Katalogoa gurasoei ere zuzendua dago, haien hitzetan, “ahalik eta materialik egokiena eros dezaten”. 245.000 ale banatu dira; iaz baino 25.000 ale gehiago. Aisialdia euskalduntzea eta hezigarria izatea da asmoa. Ikastolen eremutik kanpo, euskaraz irakurri, jolastu eta ondo pasatzeko aukera eskaintzea.

## Jostailuen egokitasunaz hizketan



**J**oxe Amiama psikopedagogoak joku eta jostailuei buruzko azalpen interesgarriak eskaini zituen abenduaren 14an Udarregi ikastolako aretoan. Hitz Aho guraso taldeak

antolatu zuen ekitaldian, haurrei oparitutako zaizkien produktuen egokitasunaz jardun zuen. Dozena bat guraso bertaratu ziren Joxe Amiamaren hitzaldira.

## 150 lagun

### Xomorroren aldeko herri bazkarian

**X**abier Aranburu Xomorrok 15 urte egin ditu kartzelan eta Aginagan ez da oharkabeen pasa. Urteurren hori medio, Elkartasun Eguna antolatu zuten Aginagako Jai Batzordeak, Etxerat-ek eta Amnistiaren Aldeko Mugimenduak. Herri bazkarian 150 lagun bildu ziren. Xomorroren senideek oroigarri bat jaso zuten.



## Juantxo Gorostidi, ziklo kros txapelduna

# “Anoetako belodromoan omendu duten ziklo kroseko txirrindulari bakarretakoa naiz”

**J**uantxo Gorostidik bere bizitzako hogeitertan ziklo krosean marka ugari hautsi zituen: Estatuko txapeldun izateaz gain, mundialetan onenekin lehiatu eta zortzigarren postua ere eskuratu zuen. Ibaetan jaio eta Urnietan hazi arren, duela urte mordo batetik Usurbilen bizi da.

**NOAUA!** Gaztetan hasi zinen ziklo krosean.

**Juantxo Gorostidi.** Jubenil mailan nentzela Aginagako jaietan ziklo krosa antolatzen zuten. Lehen aldiz, bertan parte hartu nuen. Aginagatar batek irabazi zuen. Bestela, Ingemarren lan egin eta gustuko zaletasun bezala izan dut txirrindularitza. Inoiz ez naiz kirolari profesionala izan, nahiz eta maila horretan parte hartu dudana. Garai hartan, kirolariak dirua irabazten zuten, baina ez gaur egun bezala.

**N. Txapelketa askotan parte hartu duzu eta baita irabazi ere, ezta?**

**J. G.** Hogeiterteko ibilbidean, Estatuko hemezortzi txapelketetan eta hamabi mundialetan parte hartu nuen. Denak bukatu nituen. Espainiako hiru txapelketa irabazi nituen; mundialetan, zortzigarren postua ere eskuratu nuen.

**N. Mundialak aipatuta, horien aitzakian herrialde asko ezagutzeko aukera izango zenuen?**

**J. G.** Unerik beldurgarriena Txekoslovakian egon nintzenekoan bizi izan nuen. 1968an izango zen. Errusiarrak sartu ziren eta “toque de queda” zegoen. Iluntzeko zortzietarako hotelean egon behar genuen. Bestela, poliziak edonor gatibu hartzen zuten. Lasterketa baino lehenago manifestaldia izan zen. Behin ere ez nuen horrelakorik ikusi; ume mordo bat manifestaldiko lehen lerroan eta helduak haien atzean. Ondorioz, poliziek haien aurka ezin



AGINAGAN DEBUTATU ZUEN. JAIETAKO ZIKLO-KROS PROBA, BERETZAT LEHENA, EZ ZUEN IRABAZI. GERORA, BESTELAKO ZORTEA IZAN ZUEN.

zuten ezer egin. Alemanian, Suitzan, Italian eta Frantzian ere egona naiz.

### JUANTXO GOROSTIDI

“Hogeiterteko ibilbidean, Estatuko 18 txapelketetan eta 12 mundialetan hartu nuen parte”

**N. Gogor prestatuko zinen.**

**J. G.** Zortea izan dut, txandaka lan egin behar izan baitut. Horrek lanetik kanpoko orduetan prestatzeko aukera eskaini izan dit. Entrenamendu saioetan, Andatzarrate inguruan zenbat itzuli eman ote ditut. Urnietan ere ibilbidea eginda nuen. Baserritarrek zain izaten ziren. Haiei belarra zapaltzen banien ere, ez zidaten ezer esaten. Ezagutzen baitzidaten. Xoxokatik harrobiraino nirekin entrenatzera etortzen ziren Cabestany anaiak.

**N. Zaletu faltarik ez zenuen.**

**J. G.** Gaur egun, kirolari askok dute lagunartean bat. Baina garai hartan Hernaniko Otaño Lagunartea zen bakarra. Gero, nirea, Gorostidi Lagunartea sortu zuten Urnietan. Autobusetan txapelketak ikustera joaten ziren. Egun, elkarte bat da. Hara sartzeko giltza dut, bertako ohorezko bazkide izendatu baininduten.

**N. Profesional mailan lehiatzeari uzteko unea ailegatu zen...**

**J. G.** 35 urterekin. Jada, txapelketetan parte hartzeak lotsa ematen zidan. Egun, jendeak gehiago jasaten du. Baina txirrindularitzako ibilbidearen azken urteetan, hasi nintzen oraindik jaiotzeko zeudenekin lehiatzen nintzen. Gainera, horretarako soilik prestatu izan banintz, baina hamabi ordu lan egiten nuen. Familia nuen eta pisua ordaindu beharra. Ezinezkoa zen.

**N. Azken urtean, omenaldi ugari jaso al zenituen?**



J. G. Azken urtean, lasterketa guztietan omenaldiak egin zizkidaten. Gipuzkoan, Bizkaian eta baita Bartzelonan ere. Anoetako belodromoan omendu duten ziklo krosetako lasterkari bakarretakoa naiz. Jende ona bilatu dut. Bartzelonan alojamendua hartuta egon nintzen familiako kide bat lana utzita Berara etorri zen ni ikustera. Berako lasterketa irabazi nuen. Podiumetik jaitsi, besarkada bat eman zidan. Kamiseta hartu nuen eta bere aitari emateko esan nion. Negar egiten zuen.

N. Ordutik, zure kontutik ibili izan

zara?

J. G. Usurbilera bizitzera etorri nintzenean, jende asko zebilen bizikletan. Hiru lagunuen artean taldea ere osatu genuen. Harrobi polita zegoen. Baina gerora taldea desegin zen. Bestalde, selekzionatzaile gisa ere aritu izan nintzen Gipuzkoan eta Euskadin.

N. Gaur egun, nola ikusten duzu ziklo krosa?

J. G. Gipuzkoan gainbehera. Munduko Kopa jokatzeko ez den saioetan ez da inor ibiltzen. Kirol modalitate oso gogorra da. Pentsa, nire garaian hiru hilabeteko denboraldian 22 lasterkete-



HOGEI URTEKO IBILBIDEAN, ESTATUKO 18 TXAPELKETETAN ETA 12 MUNDIALETAN HARTU ZUEN PARTE.

tan parte hartu nuen munduko lasterkari onenekin.

Hainbeste zaletu izanda, zirkuituak ere markatu beharrik ez ziren izaten.

## Aginagan egin zuen debuta Juantxo Gorostidik

Urteak dira Usurbila bizitzera etorri zela. Jaio Ibaetan jaio zen eta Urnietan hazi arren, Aginagarekin lotura berezia du Juantxo Gorostidik. Bertan lehiatu baitzen lehen aldiz.

“San Praixku jaietan ziklo kros saioak antolatzen zituzten”, gogoratu du egun Usurbilen bizi den txapel-dun ohiak. Gerora, oso bestelako emaitzak eskuratuko zituen arren, orduko hartan ez zuen halako zortetarik izan. “Aginagar batek irabazi zidan”, adierazi du Gorostidik. Garai hartan, jubenil mailan jokatzeko zebilen. Aginagar batek irabazi zion. Une hartan, ziklo krosetan hain urrutira iritsiko zenik ez zuen espero izango. Atzerrian asko ibili zen. Akaso unerik beldurgarriena Txekoslovakian egon zenean bizi izan nuen: “errusiarrak sartu ziren eta ‘toque de queda’ zegoen”, adierazi digu Juantxo Gorostidik.



HOGEI URTEKO IBILBIDEAN, ESTATUKO 18 TXAPELKETETAN ETA 12 MUNDIALETAN HARTU ZUEN PARTE. ARGAZKI HAU SANTUENEAN JOKATU ZEN TXAPELKETA BATEAN ATERATAKOA DA.

### Santueneko lasterketa hura

Argazkian ageri den txirrindulari multzo horren artean dago Juantxo Gorostidi. Ezkerretik hasita hirugarrena da. Garai hartan, 19 urte zituen. Oraindik atzerria makina

bat bidaia egiteke zituen. Lehia bizian egun bizileku duen herrian. Santuenean jokatu zen txapelketa bateko argazkia da.

ARITZ GORRITI

  
ARRAINDEGIA  
**PELLO**  
Puntapax Kalea, 7  
Tlf 36 21 64  
USURBIL

  
ZUBIARENEAN  
ileapaindegia  
943361951  
mistoa

*Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!*  
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA  
Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 943 37 08 78  
20170  
USURBIL

# Gabonetan entrenatu eta zaindu beharra

**E**stropada garaia urrun badago ere, azaroaz geroztik arraunlariak jo eta ke entrenatzen ari dira. Neguko hilabeteetan egiten den lanak aparteko garrantzia izaten duela jakitun, ia egunero-egunero joaten dira entrenatzera eta gabonetan ere ez dute atseden handirik izango. Horixe da, behintzat, Alex Udabe San Pedroko arraunlari usurbildarrak esan diguna. Beraiek behintzat, Eguberri eta Urteberri eguna bakarrik izango dituzte jai.

Udazkenean eta neguan entrenamenduak hasi eta uda bukaerako estropadak jokatu arte, arraunlariak kirol gutxik eskatzen duten ardura eta lan egin beharra izaten du. Neguan egiten duten prestakuntza fisikoa ezinbestekoa izaten da udako estropadetakarako. Fondoa lantzeko ahalegin berezia egiten dute hilabete hauetan. Korrika, pisuak altxatzen, ergometroa... hainbat zeregin izaten dituzte aste egunetan eta asteburuetan uretara irteten ere hasiak izango dira talde gehienak.

Gabonetan ere ez dute atsedenik izango. Alex Udabe San Pedroko arraunlariak esandakoaren arabera beraiek, behintzat, egunero entrenatuko dute, baina Eguberri eta Urteberri eguna jai hartzeko moduan izango dira. "Aurten astelehenean egokitu dira bi egun horiek eta jai izango dugu. Hala ere, aurreko egunean, igande goizean, entrenamendua izango dugu".

Sanpedrotarra elkarteko arraunlariak azaroaren hasieran hasi ziren entrenamendu saioekin. Abendura arte astegunetan dituzte prestaketa saioak eta asteburuetan jai izan dute, baina orain asteburuan uretara irteten hasi dira. "Hemendik aurrera ostirala izango da jai izango dugun egun bakarra. Aste egunetan udan fisikoki ondo egoteko prestakuntza izaten da. Korrika egin, pisuak altxa, ergometroa eta abenduan traine-ruarekin uretara joaten hasi gara" dio Alexek.

## Entrenamenduak asteburuan ere

Hemendik aurrera, larunbatero eta igandero irtengo dira uretara San Pedrokoak. "Pasaiko badian ibiltzen



SANPEDROTARRA ELKARTEKO ARRAUNLARIAK AZAROAREN HASIERAN HASI ZIREN ENTRENAMENDU SAIOEKIN.

gara. Itsasoa mugitu samar egoten da neguan eta badian aritzen gara arraunean. Larunbat arratsaldetan ezin dugu itsasora irten, azkar iluntzen baitu. Iganderen batean, aldiz, eguraldi onarekin itsasoa bare egon eta itsaso zabalera bueltatxo bat egitea gerta liteke, baina broma handirik gabe badaezpada ere. Itsaso zabalera irteteko nahikoa denbora izango dugu gero ere".

Prestaketa gogorra egiten badute ere, pisua zaindu beharreko arloa izaten dute eta gabonetan gehiago. Egun hauetan ohikoak izaten dira bazkari edo afari bereziak eta jatearena nahiz edatearena zaindu behar izaten dute. "Agian gabonak pasa ondoren hartzen da serioago pisuaren kontua, baina dagoeneko zer pisutan egon behar dugun esan digute eta grasaren portzentajeak ere neurtu dizkigute". Gabonetan gehiegikeriak eginez gero, ondorengo hilabeteetan pisuan sartzeko ahalegin handiagoa egin behar hori ez omen da ederra izaten. "Askotan gramo kontuak izaten badira ere, hartu erraz egiten dira baina galdu nekez".

Ez da Alex Udabe gabonetan zaindu beharko duen bakarra. Herriko beste arraunlariak ere lanean hasiak dira. San Pedron ari dira entrenatzen horietatik bost. Iazko taldetik, Urko Manterola izan da arrauna utzi duen bakarra eta Alex Udabek, Berdaitz Larrartek eta Iñaki Portularrumek taldean jarraitzen dute. Iban Maritxalar eta Aitor Alkorta, berriz, aurtan sartu dira taldean. Azken hau

lehen ere urte askoan ibilitakoa da San Pedron. Iaz, lan kontuak tarteko, ez zen taldean izan, baina aurtengo denboraldian berriz hastea erabaki du. Iñaki Errasti aginagarra, berriz, Astillerotik Arkotera pasa da, Jon Agirrezabalak Zumaian jarraitzen du eta Imanol Zarautz Donostiako Arraun Lagunak taldean ari da entrenatzen.

JOSU ARANBERRI

## 1. Territorial taldeak bigarren postuan jarraitzen du

**U**surbil Kirol Elkarteko 1. Territorial mailako eskubaloit taldeak 31-31 berdindu zuen Oiardo kiroldegian Ormaiztegiren aurka jokaturako neurketa. Puntu banaketa honekin 2. postuari eutsi diote eta Ormaiztegiarekiko 2 puntuko aldearekin jarraitzen dute sailkapenean. Kadete mailako nesken taldeak, berriz, 38 eta 15 irabazi zuen Groseko K.E. taldearen aurka eta jubenil mutilek 36 eta 15 Donibane Eskubaloien aurka. Kadete mutilen taldea izan zen huts egin zuen bakarra, 34-37 galdu baitzuten Aloña Mendiren aurka.



## Agenda !

### Abenduak 26, asteartea

- San Esteban Txiki eguna. Meza goizeko 11:00etan. Horren ondoren, hamaiketakoa. Antolatzailea: San Estebango Jai Batzordea.

### Abenduak 29, ostirala

- Frontoi atzean euskal presoen aldeko enkartelada. 20:00etan.

### Abenduak 30, larunbata

- 19:00etan gudari usurbildarren oroime-  
nezko ekitaldia frontoian. Deitzailea, Ezker  
Abertzalea.

- Ruper Ordorika Sutegin, 22:30ean.  
Sarrerak, aldeztu aurretik, 8 eurotan kirolde-  
gian. Takilan, 10 euro.

### Abenduak 31, igandea

- Mendeku Itxuaren kontzertua eta disko-  
festa. 01:30ean, frontoian.

### OHARRA

- Zuberoako ikastolen aldeko otarrak bana-  
tu berri dira. Kororen izenean otarra enkar-  
gatu zuenak ez du saskia jaso oraindik.  
Eskuratu nahi badu NOAUA!ra deitu  
dezala. 943 360 321.

## Karaokea Ardi Beltzen

A bestea gustuko duenak, abenduaren 29an  
adu horretarako aukera. Ardi Beltz garagar-  
dotezia herriko abeslarien plazagune bihurtu-  
ko da gauerditik aurrera. Parte hartu nahi  
dutenek **hilaren 25era arte dute izena emate-  
ko aukera**, garagardotegian bertan. Izena ema-  
terakoan abestu nahi den kantaren CDa era-  
man behar da.

## Abenduaren 21ean kantuan arituko dira Udarregiko ikasleak

**A** benduaren 21ean hasiko  
dira Udarregi ikastolako  
ikasleen oporrak. Santo  
Tomas egunez egokitu da aurten.  
Azken urteotako ohiturari jarraituz,  
kantuan agurtuko dute urtea.

### HH eta gurasoak

Agerialdeko eraikinetik 11:30ak  
aldera abiatu dira, frontoi aldera jais-  
teko. Lehen geldidunea Udarregi  
Berriaren aurrean egingo dute.  
Ondoren, errotondan, Olentzeroren  
aurrean. Azken geldidunea frontoian  
egingo dute.

12:30ean, autobusa hartu behar  
dutenek, Bordatxo inguruan geratuko  
diren autobusak hartuko dituzte.  
Jangelan geratzen direnak, irakaslee-  
kin ikastolara itzuliko dira.

### LH 1/2/3/4/5/6 ikasleak

Agerialdeko eraikinetik Kalezarrera  
igoko dira. Aldapa berritik jaitsi eta  
frontoiraino joango dira. Frontoitik  
ikastolara. Itzulera, 11:00etarako ikas-  
tolan.

### DBHko ikasleak

10:00etan Udarregi berritik abiatu-



GABONETAKO KANTUEKIN  
ALAITUKO DUTE HERRIA.

ko dira. Osatuko duten ibilbidea,  
hauke: ikastola, Atxegalde, Kale  
Nagusia, eliza, Eguzkitzaldea, erro-  
tonda, ikastola. Itzulera, 11:15erako  
ikastolan.

### Abenduaren 24ko saioa Zubietan eta Aginagan

Abenduaren 24an, aldiz, Zubietan  
kantuan ateratzen den taldetxoa arra-  
tsaldeko 15:30ean irtengo da  
Ameritik.

Aginagan, ordea, goiz partean atera-  
ko dira kantuan. Abenduaren 24an,  
goizeko 9:30ean.

Usurbilgo deialdiak aldizkari  
honetako gehigarri berezian topatu-  
ko dituzue.



# Kima

MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

**Kalkos kopisteria**

FOTOKOPIAK  
zuri-beltza · koloretan

BANDERA  
SALMENTA

PINTORE KALEA 7 · LASARTE-ORIA

943 376 424 · 943 376 155 (FAX) kalkos@copisteriakalkos.com

**JOSETXO IKATZETA**

Iturgintza

TEL: 943 36 20 26  
687 95 12 25

**ARGILAN**

Etxetresna elektrikoak

**Eguberri  
zortontsuak  
opa dizkizuegu!**

Kontzertu zaharra, 13  
Uurbil

36 13 80

**www.noaua.com**

USURBILGO ATARIA

## ETXEBIZITZA

- Usurbilen pisu bat alokairuan hartuko nuke. Tf. 630 032 779.
- Emakume bat naiz eta hiru seme alaba ditut, urgentziak etxe bat alokairuan bilatzen ari naiz Usurbilen edo inguruan. Ana, 661 267 503.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3, 649 302 733 (David). Ondo zaindua, "extra" asko ditu.
- Trastero bat alokairuan hartuko nuke Usurbilen edo auzoetan. 687 706 081.
- Garaje itxi bat alokatuko nuke Usurbilen. 664774024.
- 80.000m2ko lursaila salgai. Ura eta bertarainoko bidearekin. 664774024.

## LANPOSTUAK

## Lan-eskaerak

- Sukaldari laguntzailea behar da Usurbilen. Interesatuak deitu 943370344
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun ososko disponibiltatea. 679742413.
- Bi emakume eskaintzen dira goizez bi orduz lan egiteko. 659879040 / 943 365 737.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Magisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

## Lan-eskaintzak

- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Kamarero edo kamarera euskaldun bat behar da Zumeta jatetxean. 943 36 27 13.
- Arratsaldean etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabiltza 645403905.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Mercedes Vito Mixta 112CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa, aurreko eserlekuak birrikariak, dena hornitua, ASR... Interesatuak deitu 610431999
- Azaroak 19an Kale Nagusian, Arratoi Txakur marroi ilun bat aurkitu da. Galdu duenak deitu 659883912 telefonora.
- Faena markako lau besoko kafetera bat daukat salgai. 645708191.
- Citroen Sahara 2000 HDI VTS Cupe bat daukagu salgai. Oso ondo zaindua eta beti garaje-egondakoa. Extra asko ditu. 667272889
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637760852.
- Bizirik edo jateko garbituta antxumeak dauzkat salgai. 664774024
- Tximenearako egurra salgai. Akazia, pinua eta pagoa. 664774024.
- Bertako babarrun beltza eta baserriko oilaskoak saltzen ditut modu onean. 664774024.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685757962.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna kondizio onetan daukagu salgai. 676453176.
- Snow egiteko tabla bat fijasioekin salgai. 679185102
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. Emaizta profesionala, modu onean. 617242660 / apore@euskalnet.net
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.

## Eguneko goardiako farmaziak

**Abenduak 21, osteguna**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Abenduak 22, ostirala**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Abenduak 23, larunbata**  
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Abenduak 24, igandea**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Abenduak 25, astelehena**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Abenduak 26, asteartea**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Abenduak 27, asteazkena**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Abenduak 28, osteguna**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Abenduak 29, ostirala**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Abenduak 30, larunbata**  
Iturralde, Bordaiberri 1 Usurbil  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Abenduak 31, igandea**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,  
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

## JAIOTAKOAK

- Aiora Arrillaga Serrano, abenduaren 4an.
- Goiatz Aiestaran Iraeta, abenduaren 9an.
- Sara Gomez Varela, abenduaren 10ean.
- Unax Urkia Uli, abenduaren 11n.

## Txerrimunik ordainetan

## Zorionak Fran!

Gabon egunean zure urtebetetzea denez zorionik beroenak etxeko izenean batez ere Koldo, Julen eta Nerearen partetik.



## Zorionak Maddi!

Abenduaren 24an sei urte beteko dituzu. Jadanik opariaren zain egongo zara, ea gustokoak dituzun! Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez.



## Zorionak Xomorro!

Abenduaren 17an zure urtebetetze eguna izan zen eta ederki ospatu genuen bazkari eta guzti, eta zorionak bidaltzeko aprobetxatu genuen, zorionak eta besarkada handi handi bat! Eutsi goiari! Euskal preso eta iheslariak etxera! Jo ta ke irabazi arte!



teilatuak eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**

**Obaba kalea 29 • ASTEASU**  
☎ **943 69 68 52 • 620 800 186**

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Oñindegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**

**Zendoia**

Kale Nagusia 35 • 943 37 40 71





Usurbilgo Udala

Gabon-gau, Eguberri  
ta urteberri on  
bakean bizi diren  
andre eta gizonoi.  
Begira familia  
zer giro darion  
elkarri opatuz  
pake eta zorion.

Urte berri on !

# MAHUKAn

Aukera zabala!!



Zorionak  
eta  
Urte berri on!